

Senideen elkartasuna mugen gainetik

PRESOEN ALDEKO NAZIOARTEKO TALDEAK. Igandean Donostian Senideak eta Gureak elkarteek egingo duten Batzar Nazionala dela eta Irlanda, Britainia eta Argentinako taldeetako kideak Euskal Herrian dira



EDURNE KOCH

Senideak elkarteko ordezkariak, Argentina, Irlanda eta Britainiako ordezkariekin, atzo, Donostian eskainitako prentsurrekoan.

Aitziber Iartza | DONOSTIA

Hainbat herrialdetako preso senideek parte hartuko dute, gonbidatu gisa, igandean Senideak eta Gureak elkarteek egingo duten batzarrean. Irlanda, Britainia eta Argentinako ordezkariak prentsurrekoan azaldu ziren atzo. Kurdistango Bakearen Aldeko Amak taldeko ordezkariak etortzekoak ziren, baina oraingo ezin izan dute, Turkiako enbaxadak ez baitie bisa eman. Kortsikako ordezkari bat ere etortzekoa zen, baina istripua izan zuen. Hainbat arazo han eta hemen berberak direla ikusi zen, eta elkarlanaren beharra ere agerian geratu zen.

Jim Mc Veighk Irlandako Long Kesheko espetxean 17 urte egin ditu preso, eta anaia bat preso edukitzea zer den ere badaki. Mc Veigh, gainera, Long Kesheko preso ordezkari izan zen, eta duela 18 hilabete utzi zuten aske. Presoek edozein herritako gatazkan duten papera azpimarratu zuen Mac Veigh, Irlandako kasutik abiatuta. «Aurten Long Keshen gose greban hildako preso 20. urterena betetzen da. Orduan Britainiako Gobernuaren helburua kriminalizazioa zen. Batetik, presoak emozionalki eta fisikoki suntsitu eta politikoki antolatzeke aukera ez izatea nahi zuen. Bestetik, kanpotik elkartasuna eten nahi zuen, presoak kriminalizatatu eta familiakoei gaizki sentiaraziz. Presoak suntsituta IRA desagerraraziko

SENIDEEN BATZAR NAZIONALA

Igandean Euskal Herriko senideen bilgunea

Igandean goizeko 09:30etik aurrera Senideak eta Gureak elkarteek batera Batzar Nazionala egingo dute Donostiako Kursaallean. Preso eta errefuxiatuen senideek azkenaldian eginiko barne eztabaida «aberasgarriaren» amaiera ekitaldia egingo dute, Tomas Karrera Senideak elkarteko kideak azaldu zuenez, eta ateratako ondorioak martxan jarriko dituzte.

zuela uste zuen Gobernuak», adierazi zuen. Aitzitik, irautea eta kriminalizazio politika gainditzea lortu zutela azpimarratu zuen Mc Veighk. Hala, gertaera horietatik ia 20 urte igarota, Long Keshen Britainia Handiko Gobernuko ordezkari Mo Mowlanekin bildu zela azaldu zuen, eta Gobernuak preso politiko izaera onartu eta presoek gatazkaren konponbidean zuten garrantzia onartu zuela.

Honetan guztian presoak Irlandan biltzea eta estatus politikoa ematea zein garrantzitsua izan zen azpimarratu zuen, eta mezua igorri zion Espainiako Gobernuari. «Gobernu ingelesa preso irlandarren duintasuna suntsituko zuelakoan zegoen eta Espainiakoa ere berdin jokatzen dihardu. Irlandan 1994an aukera paregabea izan zen IRAren su-etenarekin, baina Majorrek ez zuen ezer egin, ez zituen ezta presoak Irlandan batu ere. Gobernuak, baina, ikasi zuen, eta

hala, bigarren su-etenean preso guztiak Irlandara eramane zituen eta horrek asko lagundu zuen bake bidean oinarria ezartzeko orduan. Espainiako Gobernuak ez luke denbora gehiago galdu behar etorri beharrekoa behin eta berriro atzeratzen».

Baldintza-arazotan berdintsu

Skoazell Vreizh Britainiako taldeko Per Locquet eta Ivonne Jouaenek azaldu zuten elkarte honek 32 urte daramatzala bertako preso politikoei eta senideei laguntza ematen. Hala, azaldu zuten, euskal preso hainbat eskaera britainiarren berberak dira, bereziki Frantziako kartzeletan dauden preso kasuan. «Hainbat eskaeretan bat gatoz. Izan ere, estatus politikoa ez duten arren, tratamendu berezia ematen zaie, zigor berezia. Hala, estatus politikoa, bakartzearen amaiera, euren jaioterrietara eramatea eta komunikazioetarako oztupoak

Karrerak azpimarratu zuen senide guztien bilgune izan nahi duela batzarrak. «Barrura begira egingo da, sufrimendua nola amaitu hausnartu eta bideak zehazteko. Irtenbidea posible dela uste dugulako, bakea posible dela uste dugulako, sufrimendua ezabatzea posible dela uste dugulako. Horren guztiaren inguruan arituko gara», adierazi zuen.

Senideen batzarrean soilik Euskal Herriko preso eta errefuxiatuen familiakoak eta nazioarteko hainbat herrialdetako senideen ordezkariak izango dira. Batzarra 12:30ean abiatuko den karteladarekin amaituko da.

amaitzea, eskaera berberak ditugu», azaldu zuen Ivonne Jouaenek. Senideen eta Gureak batzarrean egoteko arrazoia hala azaldu zuen: «Hemen gaude elkartzeko beharra ikusten dugulako, konfederazio bat sortzeko beharra».

Nazioarteko taldeen artean elkartzeko beharra

Argentinako egoera dela medio Maiatzeko Plazako Amak ez dira igandean Donostian izango, baina hauen babeserako Euskal Herriko batzordekoak bertan izango dira. Willy Nocetik bide errepresiboaren mundializazioa izan zuen hizpide. «Han eta hemen oinarri zanpatzaile berak baliatzen dira. Esaterako, sakabanaketa eta bakartze politikarako espetxeak Argentinan 1973an erabiltzen hasi zirela esan zuen. «Etsaiak jazartze politikaren mundializazioan abiatu dela ikusten dihardugu, eta horri modu bateratuan eran-

ESANAK



JIM MC VEIGH
(Irlandako preso ohia)

«Gobernu ingelesa preso irlandarren duintasuna suntsituko zuelakoan zegoen; hala dabil Espainiakoa ere»



IVONNE JOUAEN
(Bretanako Skoazell Vreizh taldekoa)

«Eskaeretan bat gatoz, estatus politikoa eduki ez arren, tratamendu berezia ematen baitzaie, zigor berezia»



WILLY NOCETI
(Argentinako Maiatzeko Plazako Amen laguntzarako batzordeko kidea)

«Etsaia zapalkuntzaren mundializazioan abiatu da, eta horri modu bateratuan erantzun behar zaio»

tzun behar diogu. Etsaia presoak despolitizatzen saiatzen da. Erasoei erantzuteko ezinbestekoa da kanpoko laguntza. Etsaiak indarraz besterik ez du ulertzen, horregatik da ezinbestekoa mobilizatzea», esan zuen.